

GOGORATU

ONTZIRATZE ETA LEHORRERATZE SEGURUA	1
IRRATIBALIZA GABEKO LANERAKO SALBAMENDU TXALEKO AUTOPUZGARRIA	2
IRRATIBALIZA GABEKO LANEKO SALBAMENDU TXALEKO AUTOPUZGARRIA NOLA JARRI	3
LANEKO BIZKARRAK	4
LANEKO EKIPAMENDUAK	5
SEINALEAK I	6
SEINALEAK II	7
ARRISKU ELEKTRIKOA	8
NORBERA BABESTEKO EKIPAMENDUAK	9
SALBAMENDU KOLEKTIBOKO EKIPAMENDUAK: SALBAMENDU UZTAIAK	10
SALBAMENDU KOLEKTIBOKO EKIPAMENDUAK: SALBAMENDU BALTSAK	11
TAULA ORGANIKOA	12
EGONKORTASUNA	13
LARRIALDIAK I: ITSAS SOROSPEN ETA SEGURTASUNEKO MUNDUKO SISTEMA (GMDSS)	14
LARRIALDIAK II: LAGUNTZA ESKATZEKO DEIA	15
LARRIALDIAK III: SUTEA	16
LARRIALDIAK IV: ONTZIA UZTEA	17
LEHEN LAGUNTZA I	18
LEHEN LAGUNTZA II	19
OINARRIZKO LEGEAK I	20
OINARRIZKO LEGEAK II	21

Lan honen edukia *ISSGA_Lembra_Prevención de riesgos en la pesca* argitalpenean oinarrituta dago. Bere erabilera eskubidea © Instituto Galego de Seguridade e Saúde Laboral - ISSGari dagokio eta OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari erreproduktzioarako baimena eman dio.

GOGORATU


ONTZIRATZE ETA LEHORRERATZE SEGURUA

Aitzat eduki segurtasunez ontziratze eta lehorreratzeko hainbat aholku, arrisku-egoerak eta ezbeharrak saihesteko.

Ontzira igotzeko eskailerak edo pasabideak erabili.



Kaietako hormetan finko dauden katu-eskailerak horien mailatik gora aterako dira, erorikoak saihesteko.




Ez ontziratu/lehorreratu kaiko hormetako defentsa edo soketatik.



Pantalan flotatzaileetako *finger*-ak erosoak eta seguruak dira ontzira igotzeko.



Kontuz, arrapala eta eskaileretako goroldioarekin eta algekin irrist ez egiteko.




Portuetako salbamendu baliabideek laguntza azkarra bermatzen dute erorikorik gertatuz gero.



Ez jauzi egin kaitik ontzira, altura dezentea badago.



Ontzi abarloatuetan, pasabidea erabili batetik bestera pasatzeko. Beharrezkoa bada, branka eta hegal artean jauzi egin.



Ez ontziratu inolako zamarekin. Zama, jauzi egin baino lehen edo gero.



GOGORATU

IRRATIBALIZA GABEKO LANERAKO SALBAMENDU TXALEKO AUTOPUZGARRIA

Neurri kolektiboek ez badute arrisku jakin bat saihesten, beharrezkoa da norbera babesteko ekipamendua (NBE) erabiltzea (LAP 31/95 Legea).

Lanerako txaleko autopuzgarriak flotagarritasuna bermatzen digu, bizkarrean lanean ari garela itsasora eroriz gero.


Beste araudi interesgarri batzuk: 809/1999 ED eta 543/2007 ED.



Ezaugarriak
eta ziurtagiriak.

Aurretiazko egiaztatzeak:

- Ikuskapen bisuala.
- CO₂ botila ongi hariztatuta.
- Tiraketa automatikoa ongi hariztatuta.
- Gatz bobina: OK.
- Esku kliskagailua eskura.



Tiraketa automatikoa.



Eskuzko tiraketa.



Mantentzea:
Fabrikatzailearen
jarraibideei kasu egin.



Puztea.





GOGORATU

IRRATIBALIZA GABEKO LANEKO SALBAMENDU TXALEKO AUTOPUZGARRIA NOLA JARRI



Ustekabeen itsasora eroriz gero, salbamendu txaleko autopuzgarria ongi jartzeak ur gainean mantentzeko aukera emango digu, erreskatatuak izan arte.



Belarria askatu,
uhalak lasaitu eta
txalekoa aurrez
aurre jarrita,
besoetako bat
txalekoaren
maukatik sartu.



Ondoren, beste
besoa sartu eta
txalekoa jaka
bat balitz bezala
jantzi.



Bi belarriak edo
krisketak lotu.




Uhala estutu, txalekoa gorputzera egokituta.

GOGORATU

LANEKO BIZKARRAK

Ontzia lantoki mugikorra eta ezegonkorra da, eta erraza da bertan erortzea edo irrist egitea. Aintzat hartu hainbat aholku, halakorik ez gertatzeko:



Arduratu laneko azalerak beti pintura irristagaitzez margotuta egoteaz.




Boten zolek ongi egon behar dute, edozein azaleratara heltzeko.



Kainu-zuloek libre egon behar dute, trabarik gabe. Ontziratzen duzun ura hustu behar duzu.




Zure ontziaren karel-tapa oso baxua bada, jarri barandak inguruan, inor itsasora ez erortzeko.



Konponbide ona da soka duten zutikoak jartzea, lanen bat egin behar izanez gero kentzeko modukoak.



Sokak eta rabizak bilduta eduki bizkarrean. Horiakin trabatzea saihestu eta erabiltzeko prest egongo dira beti.



Korridoreetan heldulekuak jartzeak brankatik eta popara seguru igarotzen lagunduko dizu.



Zaindu aparailuaren zamaketa bizkarrean, zuk uste baino gehiago eragiten baitio ontziaren egonkortasunari.



Arduratu bizkarreko salbamendu baliabideak eskuragarri eta erabiltzeko prest egon daitezen beti.

GOGORATU

LANEKO EKIPIAMENDUAK

Gure eguneroko lana betetzen laguntzen diguten elementuak dira (makinak, gailuak, tresnak edo instalazioak). 1215/1997 ED.



Sare polipastoa
Sareari eta sokei bira ematen laguntzen digute, baina gu ez harrapatzeko moduan egin behar da.



Plater polipastoa
Ez manipulatu soka edo subila polipastotik pasatzen ari bada.



Gindaxak eta danborrak
Ez eman beharrezkoak baino buelta gehiago sokarekin danborrean, eta hori ongi hariztatu, arrisku gehiago ez gehitzeko.



Larrialdiko botoia
Laneko ekipamendu guztiek eduki behar dute berehala eta segurtasun baldintzetan gelditzeko mekanismo bat.



Garabiak
Zaindu mantentze-lanak, eta kontuz zintzilik dauden zamekin. Ikuskatu linea hidraulikoak eta babestu aginteak nahi gabeko eragintzetatik.



Biraketa uhal eta ardatzak
Babestu uhal eta elementu higikorak harrapaketak saihesteko.



Sokak, gida-txirrikak, girgiluak.
Tarteka higadura ikuskatu eta hondatuta daudenak aldatu.



Erabilera eskuliburua
Egin kasu beti ekipamenduen fabrikatzaileak eskuliburuan esandakoari.



Panel elektrikoak
Seinaleztatuta beti. Zuzeneko eta zeharkako kontaktuetatik babestu.


GOGORATU

SEINALEAK I


Seinale berdeei edo gorriei jarraituta, ekipamenduak eta salbamendu zein suteen kontrako baliabideak non dauden jakingo dugu.



OMI 210
Salbamendu
baltsa.




OMI 235
Salbamendu uztai
rabizaduna.




OMI 250
Salbamendu
txalekoa.




OMI 260
Urperatze-jantzia.




OMI 270
Lokalizazio
irratibaliza.



OMI 280
Laguntza
eskatzeko bengalak.




OMI 285
Paratxut-
bengalak.



OMI 295
Elkartze
puntua.




OMI 810
5 kg-ko hautsezko
su-itzalgailua.



OMI 830
2 kg-ko CO₂
su-itzalgailua.



OMI 685
Mangera.



OMI 440
CO₂ deskargatzeko
estazioa.



Larrialdi-irteera.

GOGORATU

SEINALEAK II

Seinale urdinei edo horiei jarraituta, NBEak nahitaezkoak diren edo zer arrisku dauden jakingo dugu.



Entzumena babestu.



Ikusmena babestu.



Burua babestu.



Oinak babestu.



Eskuak babestu.



Harrapaketa arriskua.



Beste maila batera erortzeko arriskua.



Estropezu egiteko arriskua.



Arrisku elektrikoa.



Partikulen proiektzioa.



Izaki bizidunak.



Temperatura baxuak.



Zamak zintzilik.

GOGORATU

ARRISKU ELEKTRIKOA

Ontziak instalazio elektriko kaskarra edukitzeak kalteak eragin ditzake osasunean: kontaktu zuzen edo zeharkakoen ondoriozko elektrokuzioa eta gainkarga edo zirkuitulaburrengatiko sute arriskua. Halakoak saihesteko, kasu egin ondorengo aholkuei:

Babestu instalazioa etengailu magnetotermiko eta diferentzialekin.

Arrisku elektrikoa adierazi koadro elektriko eta ekipamenduetan (485/1997 ED).

Ur gazia elektrizitate eroale ona da. Eskuak bustita badituzu, ez ekipamendurik manipulatu.

Langile espezializatuek bakarrik egin behar dituzte instalazio eta ekipamendu elektrikoetako konponketak, eta tentsiorik gabe.

Laneko ekipamendu guztiek karkasak edo inguratzaileak eduki behar dituzte, zuzeneko kontaktu elektrikoak saihesteko.

Hari eroaleak egoera onean daudela egiaztatu. Ez du kable zuriturik egon behar sekula.

Nahitaezkoa da instalazio elektrikoan aldian behin mantentze-lanak egitea.

Bateriek aireztapen egokia duten konpartimentuetan egon behar dute, eta borneek garbi-garbi eta koipeztatuta egon behar dute, zirkuitulaburrak saihesteko.

Kontaktu elektrikoek erredurak eragin ditzakete, bai eta bihotz-biriketako geldialdia ere.



GOGORATU

NORBERA BABESTEKO EKIPIAMENDUAK

Norbera babesteko ekipamenduak langileek euren segurtasuna edo osasuna babesteko jantzi edo eduki beharrekoak dira.

ARRANTZA-LANETAN:



Uretako arropa
Euritik eta itsasoko uraren zipriztinetatik babesteko.



Botak
Hezetasuna eta ura isolatzen dituzte. Zola irristagaitza eduki behar dute, eta punta, indartuta.



Eskularruak
Eskuak eraso mekanikoetatik (ebaki, zulatze eta abar) eta elementu narritagarriekiko kontaktutik babesten dituzte.



Salbamendu txalekoa
Itsasora eroriz gero, ur gainean mantenduko zaitu.



Kaskoa
Zintzilik dauden zamak manipulatu behar badituzu, babestu burua kaskoarekin.



Jaka termikoa
Hotza adiskide txarra da arrantzarako. Jantzi arropa bero eta erosoa.

ONTZIKO MANTENTZE-LANAK:



Betaurrekoak
Harraskatu, isuri edo bizarrak kentzeko gailua erabili behar baduzu, saihestu begietarako proiektzioak.



Entzumenaren babesa
Zarata egiten duten makinak erabili behar badituzu, tapoiak edo babesgarriak erabili.



Maskara
Harraskatze eta pintura lanetan, nahitaezkoa da arnasbideak babestea.

GOGORATU


SALBAMENDU KOLEKTIBOKO EKIPAMENDUAK: SALBAMENDU UZTAIAK

Flotatzeko elementua, itsasora eroriz gero laguntzeko.

Aitzat eduki behar dira erabaki egokia hartzen lagunduko diguten hainbat gauza.

AINTZAT HARTU:

- Uztaiek eskuragarri egon behar dute.
- Errotulua: ontziaren izena eta portua edo matrikula.
- Ez dira ostu behar sekula.
- Ideia ona da popan uztai bat edukitzea, inor uretara eroriz gero erabiltzeko.



EZAUGARRIAK:

- Gutxieneko pisua 2'5 kg.
- Ø Kanpotik 800 mm.
- Ø Barrutik 400 mm.
- Flotagarritasun intrintsekoa 14,5 kg. Fe / 24 h.
- Suaren kontrako materiala: bakarrik itzaltzen da 2 s garretan egon ondoren.
- Girlanda: Gutxieneko neurria 9'5 mm. Lau puntutan lotuta. Luzera, uztaiaren perimetroa halako 4.

24 METROTIK GORAKO ONTZIAK

- $24 \text{ m} \leq L < 45 \text{ m}$: 4 uztai
- $45 \text{ m} \leq L < 75 \text{ m}$: 6 uztai
- $L \geq 75 \text{ m}$: 8 uztai
- %50, argidunak.
- Uztai argidunen %50ek seinale fumigenoa edukiko dute.
- Rabiza duen uztai bat alde bakoitzean.


24 METROTIK BEHERAKO ONTZIAK

Itsasertzeko arrantza, alturakoa eta altura handikoa:

- Argia duen uztai bat.
- 27,5 m-ko rabiza duen uztai bat.
- Argia duten 2 uztai (popan malda duten arraste ontziak).

Tokiko arrantza:

- $12 \text{ m} \leq L < 24 \text{ m}$: rabiza duen uztai bat 27,5 m+ argia duen uztai bat (gaueko nabigazioa).
- $L < 12 \text{ m}$: rabiza duen uztai bat 18 m.



Uztaiek konformidade marka eduki behar dute (809/1999 ED).

Directiva 99/98

GOGORATU

SALBAMENDU KOLEKTIBOKO EKIPAMENDUAK: SALBAMENDU BALTSAK

Larrialdi kasuan ontzia utzi behar izanez gero pertsona-kopuru jakin bat hartzeko elementu birakaria.

EZAUGARRIAK (Zerrenda ez zehatza):


- Gehieneko pisua 185 kg.
- Gutxieneko edukiera: 6 pertsona (24 m-tik beherako ontzietan, 4 pertsonarentzako edukierako baltsak onartzen dira, 543/2007 ED).
- Toldo babesgarria.
- Kanpoko eta barruko girlandak.
- Gutxienez 10 m-ko txikota.
- Konpartimentu puzgarri independenteak.
- Solas A edo Solas B paketea, nabigazio-eremuaren arabera.
- Zafa hidrostatiakoaren gehieneko disparen 4 m-koa izango da.
- Karkasak ondorengoak adieraziko ditu fabrikatzailea, serie zk., Solas-ak, pakete mota, ikuskatze-data, txikotaren luzera eta zamaren gehieneko altuera.



ZAFA HIDROSTATIKOA, kontuan eduki:



- Muntaketa egokia.
- Gantxo pelikanoa.
- Iraungitze data.



Direktiva 99/98

Uztaiek konformidade marka eduki behar dute (809/1999 ED).


GOGORATU

TAULA ORGANIKOA

Larrialdietarako betebeharrak eta kontsignak.

NAHITAEZKOAK:

- Bost eskifaia-kide edo gehiagoko ontziek eta 45 metrotik gorako luzerakoek taula organikoa eduki behar dute.
- Taula organikoa ontziko leku arruntetan egongo da (jangela, kabinak eta abar).
- Denek jakin behar dituzte larrialdi, sute edo ontzia utzi behar izanez gero dituzten betebeharrak, taula organikoak adierazitakoak.
- Zure ontzian beste hizkuntza bat duten eskifaia-kideak badaude, segurtatu taulak ezartzen dizkien funtzioak ulertu eta jakiteaz.
- Simulakroak eta praktikak egin beharko dituzu, larrialdi egoeretako zalantzak argitzeko.



BETEBEHARRAK ETA KONTSIGNEN TAULA ORGANIKOAREN EREDUA

KARGUA	MISIOAK		
	Ontzia uztea	Sutea	Gizona kareletik
PATROIA	· Operazioak zuzendu. · Komunikazioaz arduratu. · Tripulazioa informatu. · Azkena da ontziratzen.	· Operazioak zuzendu. · Komunikazioaz arduratu. · Tripulazioa informatu. · Aireztapenak ixteko agindu.	· Operazioak zuzendu. · Komunikazioaz arduratu. · Ontzia gobernatu, gizona kareletik maniobra.
MAKINISTA	· Txalekoak janzteko agindu. · Baltsa jaitsi. · Ontziratzea antolatu.	· Suteen kontrako talde-burua. · Aireztatze eta atakak itxi. · Punpak eta balbulak akzionatu.	· Salbamendu baltsako burua (hala badagokio). · Salbamendu-uztaiak jaitsi.
MARINELA	· Makinistaren aginduetara. · Baltsa jaisten lagundu. · Tresnak eta elikagaiak jaso.	· Makinistaren aginduetara. · Mangerak eta su-itxalgailuak erabili.	· Eskailera jaitsi eta ontzira igo.

GOGORATU

EGONKORTASUNA


Kanpoko arrazoiengatik okertzen denean ontzia eta horrek uretan zuzen mantentzeko duen gaitasuna berreskuratzeko gaitasunean datza egonkortasuna. Eraikuntza proiektuak garrantzi handia dauka egonkortasunean.




Gida zaitez zure ontziaren egonkortasun liburuarekin.



Egonkortasuna ez da neurri zurrun, finko edo intuitiboa; objektiboa, erreal eta aldakorra baizik.



Sotoetan eta bizkarrean zamak orekatuta banatzeak oso positiboki eragiten dio egonkortasunari.




Haizeak popatik jotzen duela nabigatzerakoan, eguraldi txarrarekin saiatu atzetik dituzun olatuen abiaduran ez nabigatzen.




Zamak eta tresnak, lotuta; eta ontzia, "itsasoaren erritmoan", eguraldi txarrari aurre egiteko.



Ez egin aldaketarik ontziaren egituraren edo makinetan, adituei horrek egonkortasunari nola eragiten dion galdetu gabe.



Frankobordoa ezinbestekoa da, uste baino gehiago eragiten du ontzia egonkor mantentzeko.



Zamak goiko lekuetan jartzeak nabarmen txikitzen du egonkortasuna.




Eguraldi txarrarekin, ontzian sartzen den ura atera behar duzu. Arduratu kainu-zuloak libre eta ate zein tapa estankoa itxita egoteaz.

GOGORATU

LARRIALDIAK I: ITSAS SOROSPEN ETA SEGURTASUNENKO MUNDUKO SISTEMA (GMDSS)

Itsas sorospen eta segurtasuneko munduko sistema (GMDSS) segurtasun-prozedura, ekipamendu eta komunikazio-protokolo multzo bat da, segurtasuna handitzeko eta nabigazioa zein arriskuan dauden ontzien salbamendua errazteko diseinatutakoa.

OSAGAIAK:



GOGORATU

LARRIALDIAK II: LAGUNTZA ESKATZEKO DEIA

Irrati-komunikazio ekipoa erabiltzeko, laguntza eskatzeko kanalak edo frekuentziak zeintzuk diren jakin behar dugu.



Laguntza eskatzeko botoia sakatu DSCan.



LAGUNTZA ESKATZEKO DEIA

Kanal egokia aukeratu, eta hau esan:

- MAYDAY ... MAYDAY ... MAYDAY (MEDE... MEDE ... MEDE irakurtzen da).
- ... ontzitik ari naiz (izena 3 aldiz esan).
- Nire posizioa...da (koordenatuak adierazi).
- ... dela eta, laguntza behar dut (arazoa adierazi).

MEZUA ERREPIKATU, ERANTZUNA JASO ARTE.

VHFko 16. kanalak aditu zain egon behar du beti. Nahitaezkoa da beste ontziei laguntzea.



Gutiz beharrezkoa bada bakarrik eskatu laguntza. Salbamendua denbora eta diru asko kosta daiteke.

GOGORATU

LARRIALDIAK III: SUTEA

Suteak dira alarma ohikoenak ontzietan, eta itsasoan bizi asko galtzearen errudun. Sua itzaltzeko ekipamenduak behar bezala mantentzeak eta eskifaien ekipamendu horien erabileraren inguruko entrenamendu etengabeak neurri handi batean saihestuko dituzte suteen ondorioak.

Sua piztuz gero, "SUA, SUA, SUA" oihu egin, eta zubian eta patroiarri abisatzeko eskatu. Ondoren, hurbilen dagoen su-itzalgailu egokienarekin itzali.

Segurtasun/konformidade ziurtagiriak adierazitako ekipamenduak eduki ontzian.

Ekipamendu guztiak seinale fotoluminiszenteekin seinalatu.



Ekipamenduak ikuskatuta mantendu (1942/1993 ED).

Zubitik bozina jo (seinale luzea, laburra, luzea) hainbat aldiz.

SU MOTAK

Agente itzaltzailea	 A	 B	 C
Ura zurrustaka	EGOKIA		
Ur ihinztatua	BIKAINA	ONARGARRIA	
Aparra	EGOKIA	EGOKIA	
ABC hautsa	EGOKIA	EGOKIA	EGOKIA
CO ₂	ONARGARRIA	ONARGARRIA	

GOGORATU

LARRIALDIAK IV: ONTZIA UZTEA

Egoera arriskutsuek ontzia uztera behar dezakete, abordatzeez, suteek edo hondartzeek, besteak beste.

- Ez utzi ontzia, sekula, guztiz beharrezkoa ez bada. Horixe da lekuri seguruen salbamenduaren zain gertatzeko.
- Ez ahaztu larrialdiaz abisatzen eta alarma jotzen ontzia utzi aurretik (irratiz, DSC bidez eta abar).
- Patroiak agindu arte, ez da salbamendu baltsa botako. Egiaztatu baltsaren txikota ontziari lotuta dagoela.



Jauzi egiteko leku segurua



Jauzi egiteko leku arriskutsua

- Irratibaliza baduzu, aktibatu eta alboan eraman, salbamendu baltsarako.
- Ez uretara jauzi egin. Arropa beroa jantzi, salbamendu txalekoa jarri eta oinetakoak erantzi.
- Denbora badago, salbamendu uztaiak bota.

- Uretara eroriz gero, heldu jitoan dagoen edozeri eta ez saiatu igeri egiten.
- Egiaztatu tripulazio osoa salbamendu baltsan dagoela. Zaurituak egon daitezke ontzian.
- Hilero, ontzia uzteko ariketak egin. Ongi ikasitako tripulazioa ez du beldurrak kikiltzen.



GOGORATU

LEHEN LAGUNTZA I

Ontziko arrantzaleen osasuna edo bizia arriskuan jartzen duten istripu edo larrialdietan nola jokatu jakin behar dugu.



TELEFONO INTERESGARRIAK

- Larrialdiak 112
- Espainiako Irrati Mediku Zentroa (ISM) 913 103 475
- Itsas larrialdiak 900 202 202

ONTZIKO BOTIKINA IKUSKATUTA ETA 568/2011 ED-AK XEDATUTAKOAREN ARABERA MANTENDU



ZAURIAK

- Iturriko urarekin garbitu eta lehortu.
- Antiseptikoren bat eman.
- Apositu batekin estali.



HEMORRAGIAK:

- Zauritua etzan.
- Zauriaren lekua gorputzaren mailatik igo.
- Etengabe presionatu hemorragia lekuan.



ERREDURAK:

- Iturriko urarekin garbitu.
- Anpoilak ez lehertu.
- Apositu batekin estali.
- Erredura handia bada, ez arropa bota, erredura kimikoa bada izan ezik.




GOGORATU

LEHEN LAGUNTZA II:

HAUSTURAK:

Ondorengo seinaleek adieraziko dizute haustura baten aurrean zaudela:

- Ezin da kaltetutako atala mugitu.
- Mina sentitzen da hausturaren lekuan.
- Batzuetan deformazioa edo hantura baino ez dago.



- Ez saiatu hautsitako atala zuzentzen edo haustura manipulatzeko.
- Haustura immobilizatu, goiko eta beheko artikulazioak hartuta.
- Zauria irekia bada, apositu esteril batekin estali zauria.
- Bizkarrezurreko hausturetan, saihestu horren flexioa.



BBB:

Sor daitekeen arazo handiena bihotz-biriken geldialdia da.

Ezagutzen eta bihotz-biriken bizkortzea (BBB) egiten jakin behar duzu.

1. Zaurituak konortetik duen edo ez ikusi, mugituz eta hitz eginez.
2. Arnasbidea ireki, buruari atzerantz eta gorantz eginda, eta arnasa hartzen duen ikusi.
3. Ez badu arnasa hartzen, larrialdietara deitu eta BBB hasi.
4. Bihotzeko konpresioekin hasi, zaurituaren biriketarako haize-emateekin tartekatuz.

SEKUENTZIA: 2 haize-emate bihotzeko 30 konpresio.

ERRITMOA: 100 konpresio minutuko.

GAIXOA NOLA DAGOEN IKUSI TARTEKA



GOGORATU

OINARRIZKO LEGEAK I

Fitxa honetan, ontziaren luzeraren arabera aplikatu beharreko itsas segurtasunerako arau espezifikoak ageri dira. Horiekin batera, laneko arriskuak prebenitzekoak ere badaude.

LUZERAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	..
LEGEAK																1216/1997 ED																	
	543/2007 ED																																
																								1032/99 ED, 1422/02 EDak aldatua									
	1185/2006 ED																																
	809/1999 ED																																

LANEKO SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO ARAUAK ARAUAK:

31/1995 Legea, azaroaren 8koa,
Laneko Arriskuen Prebentzioari
buruzkoa (BOE, 1995/11/10).

42/1997 Legea,
azaroaren 14koa,
Lan eta Gizarte Segurantza
Ikuskaritza antolatzen duena
(BOE, 1997/11/15).

39/1997 Errege Dekretua,
urtarrilaren 17koa,
Prebentzio Zerbitzuen Araudia
onartzen duena (BOE, 1997/01/31).

689/2005 Errege Dekretua,
ekainaren 10ekoa,
laneko arriskuen prebentzioarako
gaitutako teknikarien jarduera
arautzen duena (BOE, 2005/06/23).

1216/1997 Errege Dekretua,
uztailaren 18koa,
arrantza ontzietan laneko segurtasun
eta osasunaren inguruko gutxieneko
baldintzak xedatzen dituena
(BOE, 1997/08/07).

1215/1997 Errege Dekretua,
uztailaren 18koa,
langileek laneko ekipamenduak
erabiltzeko segurtasun eta osasuneko
gutxieneko xedapenak xedatzen
dituena. (BOE, 1997/08/07).

485/1997 Errege Dekretua,
apirilaren 14koa,
laneko segurtasun eta osasuneko
seinaleztapen arloko gutxieneko
xedapenei buruzkoa.
(BOE, 1997/04/23).

773/1997 Errege Dekretua,
maiatzaren 30ekoa,
langileek norbera babesteko
ekipamenduak erabiltzeari buruzko
segurtasun eta osasuneko gutxieneko
xedapenei buruzkoa
(BOE, 1997/06/12).

1644/2008 Errege Dekretua,
urriaren 10ekoa,
makinak merkaturatzeko eta martxan
jartzeko arauak xedatzen dituena
(BOE, 2008/10/11).

GOGORATU

OINARRIZKO LEGEAK II

Fitxa honetan, arrantza-ontziei aplikagarri zaizkien itsasoko hainbat lege eta arau ageri dira.

OINARRIZKO BESTE LEGE BATZUK:

**1032/1999 Errege Dekretua,
ekainaren 18koa,**

24 metro edo gehiagoko luzera duten arrantza-ontziek bete beharreko segurtasun-arauak xedatzen dituena (BOE, 1999/07/01).
1422/2002 EDak aldatua.

**543/2007 Errege Dekretua,
apirilaren 27koa,**

24 metro baino gutxiagoko luzerako itsasontziek kutsaduraren inguruan bete beharreko segurtasun eta prebentzio arauak finkatzen dituena (BOE, 2007/06/01).

**1837/2000 Errege Dekretua,
azaroaren 10ekoa,**

itsasontzi zibilak ikuskatu eta ziurtatzeko Erregelamendua onartzen duena.
(BOE, 2000/11/28).

**1185/2006 Errege Dekretua,
urriaren 16koa,**

Espainiako ontzi zibiletako itsasoko irati-komunikazioak arautzen dituen Erregelamendua onartzen duena (BOE, 2006/11/01).

**809/1999 Errege Dekretua,
maiatzaren 14koa,**

98/85 EE Zuzentarauak aldatutako 96/98 EE Zuzentzaria aplikatuta, ontziratu beharreko itsas ekipamenduek bete beharreko baldintzak arautzen dituena.

**258/1999 Errege Dekretua,
otsailaren 12koa,**

itsasoko langileen osasunaren babesari eta osasun-laguntzari buruzko gutxieneko baldintzak xedatzen dituena.
568/2011 Errege Dekretuak, apirilaren 20koak aldatua.

**638/2007 Errege Dekretua,
maiatzaren 18koa,**

itsas kapitaintzak eta itsas barrutiak arautzen dituena.

Itsasontzien segurtasunerako Torremolinosko nazioarteko hitzarmena (1977/1993).

**563/2010 Errege Dekretua,
maiatzaren 7koa,**

piroteknia-gaiei eta kartutxoei buruzko Erregelamendua onartzen duena.

**MSC.48(66) Ebazpena,
1996ko ekainaren 4koa,**

Salbamenduko Gailuen Nazioarteko Kodea onartzen duena (IDS Kodea).

**1696/2007 Errege Dekretua,
abenduaren 14koa,**

itsasoratu aurreko osasun-azterketak arautzen dituena (BOE, 2007/12/31).

**SOLAS HITZARMENA
(Safety Of Life At Sea) 1974/1988,**
Itsasoan Giza Bizia Segurtatzeko Nazioarteko Hitzarmena.